



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2009ko ekainaren 12a

59. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

- Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzen duena. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (3. or.).
- Foru Lege proposamena, 1,5 milioi euroko kreditu berezia ematekoa, 2009-2010 ikasturteko lehen hiru hilekoan haur eta lehen hezkuntzako plantillei buruzko neurriak abian jarri eta lanbide heziketarekin lotutako hobekuntzak finantzatzeko aldera. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (4. or.).

E SAILA:

Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gaixotasun arraroak dituztenek “mediku-tutorea” izeneko erreferentziatzko medikua izan dezaten. Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkeztu du (6. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala zuzendu eta Nafarroan indarrean dagoen toponimia ofizialera egoki ditzan Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren logotipoa erabiliaz paratu diren bide-seinaleetako toponimo ez zuzen guztiak. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkeztu du (7. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kultur Ekintzaren Plan Zuzendaria presta dezan. Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkeztu du (9. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Txantreako Axular ikastetxea Buztintxuriko ikastetxe publikora eramateko prozesua geldiaraz dezan. Mozioa erretiratzea (11. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak sexu-eraso ooren larritasuna txikiagotzeko adierazpen oro arbuizatzen du. Eleduen Batzarrak onetsia (12. or.).

F SAILA:

Galderak:

- Galdera, Espainiako Armadak Ablitasko Ingurumen Kontserbazioko Eremu Bereztan egin dituen manobra militarrei buruzkoa, Ion Erro Armendáriz jaunak eginga (13. or.).

- Galdera, jakiteko zer dela eta Baluarte Batzar Jauregia eta Nafarroako Auditorioaren etxaurea oraindik ez dagoen euskaraz errotulaturik, Paula Kasares Corrales andreak egina (14. or.).
- Galdera, apopilo-etxeetan bizi diren pertsonak gizarte-alokairuko pisuetara eramateko planari buruzkoa, Ana Figueras Castellano andreak egina (14. or.).
- Galdera, jakiteko zenbat den ikasle/orduko kostua Zubiarte euskaltegi publikoan, María Luisa Mangado Cortes andreak egina (15. or.).
- Galdera, Bigarren Hezkuntzako irakasleen lanpostuak antolatu, sortu eta betetzeari dagokionez Hezkuntza Departamentuak aurreikusitako jarduketari buruzkoa. Galdera erretiratzea (15. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 8an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena aurkeztu du.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b) artikulua aldatzen duen Foru Lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2009ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

**Foru Lege proposamena,
Euskarari buruzko abenduaren
15eko 18/1986 Foru Legearen 5.b)
artikulua aldatzekoa**

ZIOEN AZALPENA

Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1996 Foru Legeak Nafarroako hizkuntza eremuak osatzen dituzten herriak zerrendatu zituen, garai hartako legegileari egokiak iruditu zitzaizkion irizpide soziolinguistiko eta politikoen arabera.

Araudi hura onetsi eta hogeita hiru urte iragan direnean, bistakoa da Iruñerrian etengabeko hiribilbea osatu duten gizarte eta hirigintza garapenak izan direla.

Izan ere, gaur egun bada antzeko osagai soziologiko eta soziolinguistikoak dituen "Iruñeko konurbazio" bat, gaur egun indarrean dagoen 1986ko Foru Legeak ezarritako hizkuntza eremuen banaketa berrikustea justifikatzen duena. Adibidez, konurbazio horretan izugarri igo da haurrak ikastetxe publikoetan euskaraz eskolatzeko eskakera.

Hizkuntza eremuak egokitzeari eta berrikusteari dagokionez, "Iruñeko konurbazioa" eremu mistoan sartu beharko litzateke, Administrazioak gizar-tearen eskaerari erantzuteko.

Aldaketa horrek oztopoak kenduko lituzke, Administrazioak eremu horretan derrigorrezko hezkuntza euskaraz egiteko dagoen eskaerari erantzun ahal izateko, zer herritan bizi den, horren araberrako diskriminazio artifical eta burokratikoak alde batera utzita.

Halaber, beharrezkoa da Foru Legea Nafarroako herrietako biztanleek agertutako borondatera egokitzea. Horrekin lotuta, foru lege proposamen honen helburua da eremu mistoan sartzeari gaur egun eremu ez euskaldunetan dauden zenbait udalerrri; izan ere, udalerrri horietako biztanleek eremu mistoan sartzeko nahia adierazi dute Nafarroako Gobernuak 2008ko euskararen egoera soziolinguistikoari buruz eginiko inkestan.

Artikulu bakarra. Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legeko 5. artikuluko b) letra aldatzeko. Testu hau izanen luke:

"b) Eremu mistoa, ondoko udalerrriek osatua: Abartzuza, Agoitz, Antsoain, Aranguren, Artzibar, Artazu, Atarrabia, Atetz, Barañain, Belaskoain, Berriobeiti, Berriozar, Bidankoze, Bidaurreta, Burgi, Burlata, Deierrri, Eguesibar, Erronkari, Espartza, Etxarri, Etxauri, Ezkabarte, Ezkaroze, Galar, Garde, Gares, Gesalatz, Girgillao, Goñi,

Gorza, Iruña, Itza, Itzaltzu, Izaba, Jaitz, Jaurrieta, Lezaun, Lizarra, Lizoain, Mañeru, Noain-Elortzibar, Odieta, Olaibar, Ollo, Oltza, Orkoien, Orontze, Orotz-Betelu, Otsagabia, Sartze, Txulapain, Uhar-

te, Urzainki, Uztarroze, Villatuerta, Zabaltza, Zirauki, Ziritza, Zizur eta Zizur Nagusia”

Azken xedapena. Foru lege honek 2010eko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

Foru Lege proposamena, 1,5 milioi euroko kreditu berezia ematekoa, 2009-2010 ikasturteko lehen hiruhilekoan haur eta lehen hezkuntzako plantillei buruzko neurriak abian jarri eta lanbide heziketarekin lotutako hobekuntzak finantzatzeko aldera.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 8an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentariaren elkarteak ondoko Foru Lege proposamena aurkeztu du: Foru Lege proposamena, 1,5 milioi euroko kreditu berezia ematekoa, 2009-2010 ikasturteko lehen hiruhilekoan haur eta lehen hezkuntzako plantillei buruzko neurriak abian jarri eta lanbide heziketarekin lotutako hobekuntzak finantzatzeko aldera.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona

ERABAKIA:

1. Aipatu foru lege proposamena Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

2. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernura igortzea, Erregelamenduko 147. artikuluan ezarritako ondorioetarako.

Iruñean, 2009ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Foru Lege proposamena, 1,5 milioi euroko kreditu berezia ematekoa, 2009-2010 ikasturteko lehen hiruhilekoan haur eta lehen hezkuntzako plantillei buruzko neurriak abian jarri eta lanbide heziketarekin lotutako hobekuntzak finantzatzeko aldera

ZIOEN AZALPENA

Sindikatuak eta Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak 2007ko martxoan sinatu zuten hezkuntzaren arloko ituna urteetako negoziazioen emaitza izan zen eta laburbiltzen zuen Nafarroan hezkuntza publikorako aurrekontu duinak bermatzearen aldeko apustua.

Ituna sinatu eta bi urtera, aitortu behar da itunean ezarritako neurrietako batzuk garatu direla, baina egia da, halaber, ez-betetze garrantzitsuak badirela. Hezkuntza Departamentuak iragarritakoa, alegia ez duela konpromisorik hartuko Haur eta Lehen Hezkuntzan aurreikusitako plantillak betetzeko, oso larria iruditzen zaigu. Kezkagarria iruditzen zaigu lan saioekin gertatzen ari dena; izan ere, itunean aurreikusten da 22 irakastordu zuzenen ezarpen orokorra irakasle guztientzat, baina gaur egun ez dago hori betetzeko asmorik.

22 irakastorduen ezarpenak eragina izanen du 2009ko azken lauhilekoan, baina, errealitatea ikusita, 2010eko aurrekontuetan horretarako finantzaketa ziurta dadin eskatu beharko dugu.

Gehien kezkatzen gaituen alderdietako beste bat da, hain zuzen, Lanbide Heziketa hobetzeko neurriak gerarazi izana. Gaur egun, parlamentutalde guztiek onartzen dute eta ikusten dute beharrezkoa dela Lanbide Heziketaren alde egitea; hala ere, aurrekontuan ez da islatzen desio hori egi bihurtzeko beharrezkoa den bermea.

Hezkuntza publikoaren beharrizan horiek ulertu eta Nafarroan Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea Hobetzeko 2007tik 2011ra bitarteko Itunean ezarritakoa beldurrik gabe garatze aldera, foru lege proposamen honen helburua da sindikatuek eta Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak sinatutako ituna betetzea.

1. artikulua. Onesten da 1,5 milioi euroko kreditu berezia ematea 2009rako, 2009-2010 ikasturteko lehen hiruhilekoan Haur eta Lehen Hezkuntzako plantillei buruzko neurriak abian jartze aldera. Kontusail berri honen izena izanen da "Nafarroan Irakaskuntza Publikoaren Kalitatea

Hobetzeko 2007tik 2010era bitarteko Itunaren garapena:"

2. artikulua. Aipatu kreditu berezia finantzatze aldera, jarriko dira 1.000.000 euro, "Nafarroa 2012 Plana. Nafarroako Kiroldegia" izeneko 95400 940001 6021 336102 kontusailaren kargura, eta 500.000 euro, "Nafarroa 2012 Plana. Entzierroaren eta Sanferminen Museoa" izeneko A1100 A10001 7609432300 kontusailaren kargura.

Azken xedapen bakarra. Foru lege honek indarra hartuko du Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean.

E saila:

JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da gaixotasun arraroak dituztenek “mediku-tutorea” izeneko erreferentziatzko medikua izan dezaten.

IZQUIERDA UNIDA DE NAVARRA-NAFARROAKO EZKER BATUA FORU PARLAMENTARIEN ELKARTEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita gaixotasun arraroak dituztenek “mediku-tutorea” izeneko erreferentziatzko medikua izan dezaten.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osasun Batzordean eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, ondoko mozioa aurkeztu du, Osasun Batzordean eztabaidatu eta onesteko.

Zioen azalpena

Gaixotasun arraroak erronka bat dira osasun zerbitzu publikoarentzat eta premiazko ekintzak jarri behar dira abian; izan ere, gaixotasun horien ezagutzak eta agerikotasunak baizik ez digute lagunduko bizitzak salbatzen.

Gure nahia da gaixotasun arraroak urtebetez beherako haurren heriotzen % 35aren kausa izateari uztea. Batik bat, halako gaixotasunak dituzten pertsonen itzaropena eta bizi kalitatea hobetu

nahi dugu. Hauek dira gaixotasun arraroren bat duten pertsonen senideek egiten dituzten adierazpenetako batzuk.

Helburu horiek betetze aldera, zenbait eskakizun egin dituzte. Guk eskakizun horiek babesten ditugu eta ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu, Osasun Batzordean eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du gaixotasun arraroak dituzten pertsonen izan dezatela erreferentziatzko mediku espezialista –haiek mediku-tutorea deitzen diote–, informazioa bideratzeko eta gaixoari eta/edo familiari orientabidea emateko jaso beharreko tratamenduari buruz.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du helburu horretarako aurrekontu kontusail bat ezar dezan, aurre egite aldera familiak izaten dituzten gastuei, gaixoei egin beharreko askotariko ebakuntzak, Osasunbidea-Nafarroako osasun Zerbitzuan sartzen diren tratamenduak, protesiak eta gaixotasun arraro bakoitzak berezkoak dituen tratamenduak direla eta.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du jarduera protokolo bat ezar dezan gaixotasun arraroen kasuetarako, halako moduz non lehenbailehen detektatu eta artatzen diren, kalte handiagoak ekiditeko eta dagokion tratamendu medikoa emateko.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du harreman-ildoak jar ditzan abian gaixotasun arraroak ikertzen dituzten zentroekin, egiten diren aurrerabideak lehenbailehen ezagutu eta aplikatze aldera.

Iruñean, 2009ko ekainaren 1ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala zuzendu eta Nafarroan indarrean dagoen toponimia ofizialera egoki ditzan Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren logotipoa erabiliaz paratu diren bide-seinaleetako toponimo ez zuzen guztiak.

NAFARROA BAI PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da berehala zuzendu eta Nafarroan indarrean dagoen toponimia ofizialera egoki ditzan Vianako Printzea Erakundea-Kultura eta Turismo Departamentuaren logotipoa erabiliaz paratu diren bide-seinaleetako toponimo ez zuzen guztiak.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

Nafarroa Bai parlamentu-taldeak Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ondoko mozioa aurkeztu nahi du, Nafarroako Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozka dadin.

Zioak

2008ko azaroaren 26an, Kultura eta Turismo Batzordean Nafarroa Bai parlamentuko taldeak honako galdera hau egin zion Juan Ramón Corpás Mauleón kontseilari jaunari:

- Zer egingen du Kultura eta Turismo – Vianako Printzea Erakundearen Departamentuko kontseilari jaunak bere Departamentuaren logotipoa erabiliaz paratu diren bide-seinaleetako toponimo ez zuzenak zuzentze aldera? eta zer neurri hartuko du Nafarroako toponimia ofiziala zuzen erabiltzea bermatzearen?

Kontseilari jaunak bere agerraldian konpromisoa hartu zuen gaizki idatzita paratutako bide-afixak zuzenduko zirela eta agertu zitzaizkion akats

gehienen berri ez baitzuen, horien zerrenda igortzea eskatu zion Nafarroa Baiko batzordekideei.

Kontseilariaren eskariari erantzuteko, 2008ko abenduaren 17an Paula Kasares Nafarroa Baiko parlamentariak honako dokumentu hau helarazi zioten Juan Ramón Corpás Mauleón kontseilari jaunari.

“Sr. Consejero de Cultura y Turismo,

Como me solicitó el pasado día 26 de noviembre en la Comisión de Cultura y Turismo del Parlamento de Navarra, le hago llegar algunas incorrecciones que he detectado en la señalización viaria que con el logotipo de la campaña turística de su Departamento se han colocado a lo largo de toda Navarra.

Hace unas semanas esta parlamentaria le solicitó información para conocer la lista de señales turísticas colocadas por su Departamento, los textos y la localización (Solicitud de información PEI-283/08). Esa información no me fue facilitada. Así pues, lo que le transmito son sólo las señalizaciones incorrectas que yo he detectado en mi tránsito particular, sin poder decirle nada de las muchas que seguro no habré visto. Entiendo que es labor de los técnicos de su Departamento cerciorarse de la corrección de todas ellas.

Para todas las denominaciones oficiales a las que me referiré existe normativa. Unas buenas referencias sobre la regulación de la toponimia mayor y menor de Navarra son:

- La colección de José María Jimeno Jurio que en diversos tomos abarca toda Navarra: Toponimia y cartografía de Navarra. Pamplona: Gobierno de Navarra. Dpto. de Educación y Cultura.

<<http://www.cfnavarra.es/publicaciones/default.asp?origen=Areas>>

- Gobierno de Navarra (2000). Toponimia de Navarra. Criterios de normalización lingüística y nomenclátor de localidades. Pamplona: Gobierno de Navarra. Dpto. de Educación y Cultura.

<<http://www.cfnavarra.es/publicaciones/default.asp?origen=Areas>>

– Euskarabidea, el Instituto Navarro del Vasceuce, tiene en su página web un servicio para la consulta de la Toponimia Oficial de Navarra:

<<http://toponimianavarra.tracasa.es/default.aspx?lang=cas>>

Las señalizaciones incorrectas, y con ello quiero decir las que no se ajustan a la denominación o denominaciones que el Gobierno de Navarra ha establecido como oficiales en diferentes decretos forales, son las siguientes:

- Bértiz que en unas 10 señalizaciones aparecen a lo largo de la N-121, N-121-A y N-121-B. Adjunto fotografía, nº 1. El topónimo oficial es Bertiz (Decreto Foral 103/1995, de 8 de mayo. BON nº 68, 29-05-95). Es este caso las señales anteriores –con el topónimo escrito correctamente- conviven con las nuevas –rotuladas incorrectamente-. Para comparativa ver fotografía nº 2.

- Irache en diferentes señalizaciones en vías cercanas al monasterio. El topónimo oficial es Iratxe (Decreto Foral 124/1994, de 27 de junio. BON nº 84, 15-07-94). Adjunto fotografía, nº 3 y 6.

- Egiarte en diferentes señalizaciones en vías cercanas. El topónimo oficial es Egiarte (Decreto Foral 124/1994, de 27 de junio. BON nº 84, 15-07-94).

- Iranzu en diferentes señalizaciones en vías cercanas al monasterio. El topónimo oficial es Irantzu (Decreto Foral 124/1994, de 27 de junio. BON nº 84, 15-07-94). Adjunto fotografías, nº 3, 4, 5 y 6.

- Andía en diferentes señalizaciones en vías cercanas. El topónimo oficial es Andia (Decreto Foral 193/1993, de 21 de junio. BON nº 82, 05-07-93). Adjunto fotografías, nº 3, 4, 5 y 6.

- Jauregizar / Jauregizahar que en 4 señalizaciones aparecía en la N-121-B, en Arraioz. El topónimo oficial es Jauregizarrea (Decreto Foral 103/1995, de 8 de mayo. BON nº 68, 29-05-95). Las señalizaciones han sido corregidas hace dos semanas y es de agradecer la rapidez con que se ha reaccionado para ajustar las señalizaciones a la denominación oficial.

- Minyurenea / Minddurenea en al menos 1 señalización en la N-121-A, cruce de Lesaka. Adjunto fotografía, nº 7. El topónimo oficial es Mindurenea (Decreto Foral 103/1995, de 8 de mayo. BON nº 68, 29-05-95).

- Jaureguia / Jauregia en señalizaciones en Doneztebe/Santesteban. El topónimo oficial es Jauregia (Decreto Foral 103/1995, de 8 de mayo.

BON nº 68, 29-05-95). Adjunto fotografías, nº 8, 9 y 10.

- Embalses de Leurza / Leurtzako urtegiak en diferentes señalizaciones desde Doneztebe/Santesteban a Urrotz. El topónimo oficial es Leurtza (Decreto Foral 37/1995, de 2 de octubre. BON nº 68, 11-10-95). Adjunto fotografías, nº 8, 9 y 10.

- Zamartze / Zamarce en vías cercanas a Uhartte-Arakil. El topónimo oficial es Zamartze (Decreto Foral 212/1992, de 8 de junio. BON nº 75, 22-06-92).

Un asunto que también llama la atención en la rotulación de señalizaciones turísticas nuevas es el cambio en el orden de los textos de las señalizaciones bilingües de la zona vascofona. Como podrá comprobar en la fotografía 11 (rótulo inferior), el orden es: Leurtzako urtegiak arriba y Embalses de Leurza abajo. Sin embargo, el orden se ha invertido en las señalizaciones nuevas, dando prioridad al castellano. La inversión en el orden de aparición de las lenguas oficiales se ha realizado de forma sistemática, como se puede comprobar en la fotografía nº 12, o en la señalización (de la que no apporto fotografía) que llegando a la localidad de Lekunberri desde Pamplona, indica la cercanía del Santuario de Aralar.

Así pues, y sin perjuicio de que los técnicos del Departamento apliquen el protocolo que se establezca para garantizar que la señalización turística se adecua a la toponimia oficial, esta parlamentaria espera que el Sr. Consejero dé orden de corregir las incorrecciones que le ha trasladado, tal y como Vd. aseguró en la Comisión de Cultura y Turismo del Parlamento de Navarra el pasado 26 de noviembre.

Iruña-Pamplona, a 17 de diciembre de 2008

Paula Kasares

Parlamentaria Foral de Nafarroa Bai”

2009ko ilbeltzaren 16an Juan Ramón Corpás kontseilari jaunak idatziz emandako erantzunean ondoko hau adierazi zuen: hurrengo hileetan, Herri Lan Departamentuarekin adostutako planaren arabera, gaizki idatzitako afixetan beharrezko zuzenketak eginen zirela.

Halere, sei hilabete ondoren, 2009ko ekaina hasita, kontseilari jaunari jakinarazitako bide-afixa akastun bat bera ere ez da zuzendu.

Aipatu akatsak ez dira kasu isolatuak, Kultura eta Turismo Departamentuak Nafarroako Toponimia ofizialarekin jokatu duen axolagabekeria agertzen dute.

Nafarroako toponimia ofiziala, nagusia (hau da, udalerrri, kontzeju eta toki entitateen izenak) nola xehea (hau da, inguruak, errekek bideak, mendiak...) foru dekretuz ezarrita daude eta Erakunde Publikoek toponimia ofiziala erabili beharra dute araua bete behar dutelako. Beraz, akatsak kausitzen badira, zuzendu egin behar dira, ahal den lasterren.

Hori horrela, Nafarroa Bai parlamentu taldeak honako MOZIO hau aurkeztu du:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du berehala zuzendu eta Nafarroan indarrean dagoen toponimia ofizialera egoki dituzan Kultura eta Turismo – Vianako Printzea Erakundearen Departamenturen logotipoa erabiliaz paratu diren bide-seinaletako toponimo ez zuzen guztiak.

Iruñean, 2009ko ekainaren 4an

Foru parlamentariak: Patxi Zabaleta Zabaleta, eta Maiorga Ramírez Erro

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Kultur Ekin-tzaren Plan Zuzendaria presta dezan.

SOCIALISTAS DEL PARLAMENTO DE NAVARRA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Kultur Ekin-tzaren Plan Zuzendaria presta dezan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran eztabaidatzea eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

MOZIOAREN TESTUA

MOC-00122

Samuel Caro Sádabak, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeko eledunaren ondokoak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, jabeldura baten ondorioz, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Kultur Ekin-tzaren Plan Zuzendaria presta dezan, Legebiltzarreko Osoko Bilkuran eztabaida eta onets dadin.

Zioen azalpena

Plangintza estrategikoa kulturaren alorrean duela gutxi zabalduko kontzeptua da, baina sendotu egin da kultura kudeatzeko prozedura multzo gisa eta, etengabeko aldaketak eta ziurgabetasun gero eta handiagoa nagusi diren mundu honetan, gero eta garrantzi handiago du politika publikoen arloan. Azken urteotan, ikusi dugu lehen inoiz aztertu gabeko jarduera-esparru berriak sortu direla.

Zenbait gairen ondorioz, hala nola informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera orokorra, ingurumenaren jasangarritasuna edota kultur aniztasunaren errespetua, beharrezkoa izan da planteamendu berriak egitea edo ordura arte indarrean ziren plan estrategikoak berrikustea. Bestalde, kultura herrialdeen eta eskualdeen garapenerako faktorea izatearen konbentzimenduen areagotzeak eta kulturen arteko elkarbizitzaren areagotzeak –izan ere, Europa, Espainia eta Nafarroa prozesu horretan murgilduta daude–, kulturen arloko plangintza estrategikoari toki berezia ematen diote.

Kultur ekintzarako planen xedea da epe labur eta ertainerako estrategiak diseinatzea, helburuak eta kultur ekintzak uztartze aldera. Horretarako, oinarritzen dira kultur baliabideak, zentzu zabalean hartuta, beren testuinguruaren barruan aztertzearen bidez sortutako ezagutzak, eta erakunde publiko eta pribatuen eta herritarren parte hartzearekin prestatzen dira. Proposatzen den estrategia bideratuta dago kultur arloko alderdi indartsuenak lurraldearen nortasuna eta garapena sendotzeko erabiltzera. Prozesuak helburuetara bideratzen dituzte eta horrek ahalbidetzen du gertakariei ger-

tatu aurretik erantzutea eta nahi ez diren joerak aldatzea.

Hala ere, Espainian, kultur arloko plangintza estrategikoak bide laburra egin du, eta, gainera, oraindik ez da nahikoa baloratu lurralde-garapeneri egiten dion ekarpena. Nafarroako kultur ekintzak aldaketa kuantitatibo eta kualitatibo asko izan ditu 1986an kultur arloko transferentziak eskualdatu zirenetik. Halaber, ahalegin handia egin da azpiegituren arloan eta aurrerapen handia egin da kultur etxe eta gune eszenikoen sareari dagokionez.

Hala ere, aurrerapen horrek gehiago dirudi foru erkidegoan izandako gobernu desberdinen ekintzen inertziaren ondorio, ongi pentsatu eta zehaztutako prozesu estrategiko baten eragina baino. Harrigarria da azken bi hamarkadetan Kulturaren Liburu Zuririk ez egin izana, eta harrigarria da ere ez izatea plan estrategiko bat, auziaren egoera aztertu, helburuak zehaztu, xedeak ezarri eta lanerako aurrekontu-mugak aurreikusteko.

Oro har kulturaren arloan nabarmen interesgarriak diren zenbait plan partzial jarri dira abian, eta badirudi iritsi dela garaia Nafarroako Kultur Ekintzaren Plan Zuzendari bat prestatzeari ekiteko.

2009ko maiatzaren 28an, sozialisten parlamentu-taldeak Gobernuari aurkeztutako jabeldura eztabaidatu zenean, ikusi zenez, Legebiltzarreko talde gehienek bat datoz horretan. Sektoreak ere ekimen hori eskatzen du, eta, halaber, hausnarke-ta sakona eta lasaia eskatzen du Nafarroako kultur ekintzak XXI. mendeko bigarren hamarkadan jorratu beharreko bide berriei buruz.

Hori guztia dela eta, Socialistas del Parlamento de Navarra parlamentu-taldeak ondoko mozioa aurkeztu du, Parlamentuaren Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernu-a premiatzen du:

1.- Nafarroako Kultur Ekintzaren Plan Zuzendaria presta dezan. Plan horretan aztertuko dira erkidegoak zer beharrian izanen dituen alor horretan epe labur eta ertainean, bai eta atal horretan jaso daitezkeen jardueren ildo nagusiak ere.

2.- Plan horretan irizpide teknikoak aplikatzea, nagusiki, halako moduz non administrazioek eta kultur eragileek onartuko baitute, edozein dela ere bakoitzaren ideologia zehatza.

3.- Kultur Ekintzaren Plan Zuzendaria modu parte-hartzailean planteatzea, Nafarroako kulturaren esku hartzen duten eragileak biltze aldera.

4.- Plan horrek, gutxienez ere, honako ekintzak eta jarduera-esparruak jaso beharko ditu:

I. Nafarroako kultur ekintzaren egoerari buruzko azterketa ahalik eta zehatzena egitea, eta arre-ta berezia jartzea kulturaren arloko politiketan, ekipamenduetan, publikoetan eta herritarren eskaera eta beharrianetan.

II. Zehaztea, ahal den neurrian, udalek eta foru erkidegoak kultur arloan dituzten eskumenak, ekidite aldera esparruak eta ekimenak bikoiztea edo bietako inork esku hartzen ez duen eremuak izatea.

III. Nafarroako Gobernuaren Kultur Ekintzak bere gain hartu behar duen kudeaketa sistema zehaztea eta, erabakiak hartzeari dagokionez, zorrotzasunaren, eraginkortasunaren eta arintasunaren aldeko apustua egitea, kultur plangintzaren arloko eredu aurreratuen jarraikiz.

IV. Departamentuen, gobernuen eta administrazioen –Foru Administrazioa eta Toki Administrazioa, nagusiki– arteko koordinaziorako protokolo argiak eta Nafarroan aplikatzeko proiektu estrategikoak ezartzea.

V. Nafarroako Kulturaren Kontseiluaren eginkizunak aztertzea eta bere jarduera-esparruan sorturiko eskari eta beharrian berrietara egokitzea.

VI. Kultura eta Turismo Departamentuaren ekintzak berrantolatzea, artearen esparru guztiak antolatuko dituen programa baten bidez: antzerkia, dantza, musika klasikoa, musika herrikoa, arte plastikoak, ikus-entzunezko arteak, folka eta abar. Berrantolamendu horrek kontuan hartu beharko ditu sektorearen oinarri diren hiru eremuak: jarduera profesionala, publikoarekin zerikusia duten politikak eta kultur ekintzaren sustatzaileak. Programa horrek aztertu beharko du adierazpen artistiko bakoitza, gaur egun onartzen den balio-katearen arabera; hain zuzen, prestakuntza, sorkuntza eta ekoizpena, zabalkuntza, erakusketa eta kontsumoa.

VII. Nafarroako Kulturaren Behatokia sortzea, aurreko idatz-zatian aipatu berrantolamendua arrakastaz egin, desorekak epe labur eta ertainean aurreikusi eta datu objektiboak denbora errealean eskuratu ahal izateko.

VIII. Administrazioaren eta kultur eragileen arteko harremanen aro berri bati ekitea eta dirulaguntza soilen ordeztu helburu zehatzak eta betetze-ko epeak dituzten programa-kontratuak ematea.

IX. Gaur egun dauden ekipamenduen eginkizunak eta erabilerak ahalik eta argien zehaztea.

X. Kultur Azpiegituren Plan bat egitea eta horren bidez, orain arte eginikoa kontuan hartuta, atzematen diren hutsuneak osatzea eta lortu nahi

diren helburuen arabeko gune eta beharrian berriak diseinatzea.

5.- Kontuan hartuta alderdiak gainditzeko dituen gaia dela eta denbora askorako dela, eta plan hori ez dadin izan soilik Gobernuak babesten duten taldeena, Legebiltzarra osatzen duten guztiena baik, Nafarroako Parlamentuko Kultura eta Turismo

Batzordera bidali beharko da, 2010eko urriaren 1a baino lehen, bertan eztabaidatu eta oneste aldera, Legebiltzarren Erregelamenduko 201. artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Iruñean, 2009ko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: Samuel Caro Sádaba

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Txantreako Axular ikastetxea Buztintxuriko ikastetxe publikora eramateko prozesua geldiaraz dezan.

MOZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Nafarroa Bai parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, Nafarroako Gobernuak premiatzen duena Txantreako Axular ikastetxea Buztintxuriko ikastetxe publikora eramateko prozesua geldiaraz dezan, erretiratu izanaren berri izan zuela adieraz-

tea. Mozio hori 2009ko ekainaren 9ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak sexu-eraso ooren larritasuna txikiagotzeko adierazpen oro arbuia-tzen du.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

2009ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak sexu-eraso ooren larritasuna txikiagotzeko adierazpen oro arbuia-tzen du. Halako erasoak banalizatzeak urrundu egiten gaitu genero indarkeria deuseztatzeko abian jarritako bidetik. Sexu-erasoak pertsonen integritatearen eta duintasunaren aurkako delitua dira eta ondorio larriak izaten dituzte.

2. Nafarroako Parlamentuak aitortzen ditu per-tsonen duten eskubidea eta askatasuna sexu-bizi-tza osasuntsu eta atsegina izateko, kontuan hartu

gabe pertsona horien erlijioa. Horrekin lotuta, Par-lamentuak berresten du estrategia koordinatuak abian jartzeko beharra, aurrera egiteko sexualita-tearen eta afektibitatearen heziketa egokia eta eraginkorra emateko herritar guztiei.

3. Nafarroako Parlamentuak adierazten du ez dagoela ados Elizaren agintariek eginiko adieraz-penekin, ez baitute egiten biktimen mina areagotu besterik, jasandako erasoaren arduradun egiten bai-tituzte.”

Iruñean, 2009ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

F saila:
GALDERAK

Galdera, Espainiako Armadak Ablitasko Ingurumen Kontserbazioko Eremu Berezian egin dituen maniobra militarrei buruzkoa.

ION ERRO ARMENDÁRIZ JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ion Erro Armendáriz jaunak aurkeztutako galdera, Espainiako Armadak Ablitasko Ingurumen Kontserbazioko Eremu Berezian egin dituen maniobra militarrei buruzkoa.
2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.
3. Landa Garapenerako eta Ingurumeneko Batzordean izapidetzea.

Iruñean, 2009ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteko Ion Erro Armendárizek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egin du, dagokion batzordean ahoz erantzun diezaioten:

Zioen azalpena

Duela gutxi, Ecologistas en Acción talde ekologistak salatu du maniobra militarrek egin direla Ablitasko Ingurumen Kontserbazioko Eremu Berezian.

Inguru horren gainean hegan egiteak, helikopteroaren zarata eta potentzia dela eta, nahaste handia sortzen du bertako faunan, bereziki ugaltze garaian.

Nafarroako Ezker Batuak ez du ulertzen halako hegaldiak egiteko baimena eman izana, ez eta Nafarroako Gobernuak halako maniobra egiten direla jakitea eta ez salatu izana ere. Hori dela eta, ondokoa jakin nahi dut:

- Zer neurri hartu ditu edo hartuko ditu Nafarroako Gobernuak Espainiako Armadak Ablitasko Ingurumen Kontserbazioko Eremu Berezian egin dituen maniobra militarrek direla eta?
- Nafarroako Gobernuak ba al du asmorik neurriak hartzeko etorkizunean halako ekintzarik ez dadin egin Nafarroako eremu babestuetan?

Iruñean, 2009ko maiatzaren 28an

Foru parlamentaria: Ion Erro Armendáriz

Galdera, jakiteko zer dela eta Baluarte Batzar Jauregia eta Nafarroako Auditorioaren etxaurrea oraindik ez dagoen euskaraz errotulatur.

PAULA KASARES CORRALES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Paula Kasares Corrales andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zer dela eta Baluarte Batzar Jauregia eta Nafarroako Auditorioaren etxaurrea oraindik ez dagoen euskaraz errotulatur.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2009ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Paula Kasares, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ondoko galdera hau egin nahi du Kultura eta Turismo-Vianako Printzea Erakundearen Departamentuko Kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun diezaion:

Zer dela eta Baluarte Batzar Jauregia eta Nafarroako Auditorioaren etxaurrea oraindik ez dago euskaraz errotulatur?

Iruñean, 2009ko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: Paula Kasares Corrales

Galdera, apopilo-etxeetan bizi diren pertsonak gizarte-alokairuko pisuetara eramateko planari buruzkoa.

ANA FIGUERAS CASTELLANO ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Figueras Castellano andreak aurkeztutako galdera, apopilo-etxeetan bizi diren pertsonak gizarte-alokairuko pisuetara eramateko planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

Izquierda Unida de Navarra-Nafarroako Ezker Batua foru parlamentarien elkarteak ondoko galderak aurkeztu ditu, Gizarte Gaietako Departamentuak idatziz erantzuteko:

Duela gutxi Gizarte Gaietako Departamentutik jasotako erantzun baten arabera, gaur egun Departamentua lanean ari omen da apopilo-etxeetan bizi diren pertsonentzako pilotatze-espereztzia bat abian jartzeko, pertsona horiek gizarte-alokairuko pisuetara eramateko, betiere etxebizitza sozialen programaren barruan eta Esku-hartze Soziokomunitarioko Taldeak gainbegiratuta. Honakoak jakin nahi ditut:

Zer lankidetzaren plan ezarriko da buru-osasunaren arloko zerbitzuen eta gizarte ongizatekoen artean pertsona horiei laguntze aldera?

Zenbat denbora beharko da programa hori abian jartzeko?

Departamentuaren ustez, zer giza baliabide beharko dira esperieztzia hori abian jartzeko?

Zer pertsona, elkarte edo enpresarengan ari da pentsatzen Departamentua pertsona horiek artatzeko gizarte-alokairuko pisuetan?

Iruñean, 2009ko ekainaren 1ean

Foru parlamentaria: Ana Figueras Castellano

Galdera, jakiteko zenbat den ikasle/orduko kostua Zubiarte euskaltegi publikoan.

MARÍA LUISA MANGADO CORTES ANDREAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Luisa Mangado Cortes andreak aurkeztutako galdera, jakiteko zenbat den ikasle/orduko kostua Zubiarte euskaltegi publikoan.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 192. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2009ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

GALDERAREN TESTUA

María Luisa Mangado Cortes, Nafarroa Bai taldeko parlamentariak, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduan xedatutakoaren arabera, ondoko galdera egiten du Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun diezaion:

Zenbat da ikasle/orduko kostua Zubiarte euskaltegi publikoan?

Iruñean, 2009ko ekainaren 4an

Foru parlamentaria: María Luisa Mangado Cortes

Galdera, Bigarren Hezkuntzako irakasleen lanpostuak antolatu, sortu eta betetzeari dagokionez Hezkuntza Departamentuak aurreikusitako jarduketei buruzkoa.

GALDERA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2009ko ekainaren 8an egindako bilkuran, Eledunen Batzarri entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. María Victoria Arraiza Zorzano andreak aurkezturiko galdera, Bigarren Hezkuntzako irakasleen lanpostuak antolatu, sortu eta betetzeari dagokionez Hezkuntza Departamentuak aurreikusitako jarduketei buruzkoa, erretiratu izanaren berri izan

zuela adieraztea. Galdera hori 2009ko ekainaren 9ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2009ko ekainaren 8an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

